




ERMUKO KOBAZULOAK BISTAN

drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 154. alea 2008ko otsaila

Lur azpiko Ermua

Lur azpiko mundua mundu misteriotsua dugu, askotan legendekin lotura izan duena, sorgin eta basajaunen bizilekua dela, altxor lilugarrien ezkutalekua dela edota basapizti gizajaleen gordelekuak direla. Lur azpirako sarrera horiei koba-zulo, haitzulo, leitzulo edo leizeak esaten zaizkie, kobaren ezaugarrien arabera: koba, izen generikoa da; leizeak, sarrera bertikala du; haitzak, arroka esan gura du eta zuloa; sarritan, sarrera estua delako erabili ohi da. Euskal Herrian hainbat daude, margoak edo antzinako giza eta animalia-aztarnak agertu direlako ospetsuak.

Ermuan, horrelako entzute handiko kobarik ez dugu. Baina han-hemenka, gure mendietan barrena, kobak,

leizeak eta zuloak badira, sarri, larra eta sastrakaz erdi estalirik. Haiek sorleku bihurtuz, herriak kondairak, ipuinak eta gertaerak osatu ditu: hala nola, Mañeko lezean hartza topatu zutenekoa, Munikolakoan urrezko ferrak zituen jeneral baten zaldia amildu zenekoa, Mundiokoan itsasoraino doan errekatxoa sortzen denekoa, Errekaldeko lezea bidelapurren ezkutaleku zenekoa edota gerra garaian Eibartik ihesian zebiltzan karlista baten eta militar madrildarrak Okilloko koban babesa hartu zutenekoa. Horiek historia guztietatik batzuk egia badira; beste batzuk, berriz, asmatuak. Horretan ez gara sartuko. Benetakoak direnak, oster, lekuak eurak dira, eta lehen ezagunak ziren leku horietako batzuk berriro gogora ekarri nahi ditugu.



Artarregiko koba

Baina, oraingoan euren kokapena ondo zehazteko asmoz koordinadak eta altuerak GPSez hartu ditugu.

- Mundioko koba: Urkogoiko baserriaren ganean Mundi izeneko basoan kokatuta dago (43° 12,337N, 002° 30.1540, 487m). Sarrera polita du, ia zutik sartzeko modukoa. Lehengo gela altua eta nahiko zabala da. Barruratzuz gero, ura, putzu txiki

eta garden batean, zelan jausten den entzuten da. Antzina, eguraldi eskasari aurre egiteko, ardiek-eta aterpea bilatzen zuten bertan.

- Errekaldeko lezea: Errekaldeko baserritik 100 metrotara dago, errekatxo siku bat jarraituz, ezkerreko artadiaren hertzean. Ingurua ondo garbitu dute, errez topatzen da. (43° 11.925N, 002° 30.2630, 291m). Koba



Mundioko koba

**Mundiokoan itsasoraino
errekatxoa sortzen
denekoa diote kondairek**

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu




Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

hau txikia dugu, sartu eta gora egiten du tximinia baten bidez.

• Mañeko lezea: Mañeko eta Urkogoiko baserrien bigurutzetik 100 metro gorago dago, bidearen ezker aldean, larra eta sastraz guztiz hartutako haritz zahar baten azpian. Bertan, haitz batzuk daude eta euren artean zabaltzen da leze hau. (43° 12.098N, 002° 30.2900, 356m). Oso sarrera estua eta guztiz bertikala du. 15 metro aereoko gainditzeko sokak behar-beharrekoak ditugu. Behin lurra jo ostean, gela itxi bat du, baina besterik ez. Bertan, aire-korronterik ez izateak arnastea oztopatzen du. Nahiko klaustrofobikoa da. Gillermo Bengoetxea 'Txindurrik' Hartza eguneko koplak asmatzean, leze hau erabili zuen hartzaren ezkutaleku legez.

• Artarregiko koba: Kurasokoa edo Kanterazarrekoka ere esaten zaio. Herritik gertuen dagoena. Sakonako etxeetatik parez pare dago-



en harrobi zaharrean dago kokaturik (43° 11.376N, 002° 30.0040, 211m). Kanterazarra martxan zegoela agertzen. Gaur egun, bertara joateko Goienkale kaletik, 37. atarian parean dagoen bide estu eta malkartsu batetik

heldu beharra dago. Ermuko kobarik handiena eta politena dugu, baita hezeena ere. Kobetan dabilenaren uste-tan txikia bada ere, espeleologian hasiberrientzako oso erakargarria izan daiteke, estalaktitak eta estalagmitak, pasabide estuak, sokaz jaisteko eta igotzeko lekuak eta abarrak dituelako.


• Okilloko koba: Eitzagan dugun koba da, Eitzagoiko baserritik gorako bidean dago. Olakorta tabernaren pa-

rean dagoen harrobiaren goi-eskumaldean. Sarrera beherantz du, jarraian gela bat eta erdian beherantzko pasabidea. Guztira 50 metroko luzera du. (43° 10.1016N, 002° 30.0420, 415m).

Σ Munikolako koba. Honen arrastrorik ezin izan dugu topatu. Munikola inguruan dago (N-43° 12' 02'', E-1° 11' 51'', 287 m). 8 metroko luzera.

Fernando Aranberri

Artarregiko koba estalaktita, estalagmita eta pasabideek egiten dute erakargarri



GURE
AMETSA

**Gure dantza
Zure dantza**

Gureametsataldea@hotmail.com



Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com



KIROL MEDIKUNTZA

indartu








**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONozimendu MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net